

## XEDAPEN OROKORRAK

### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

## 3200

*179/2017 DEKRETUA, ekainaren 20koa, Lan eta Justizia sailaren Estatistika-Organon Espezifikoa sortzeko eta haren antolaketa eta funtzionamendua zehazteko.*

Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jarduketak eremuak finkatzen dituen), Lan eta Justizia Sailaren sorrera aurreikusten du 16. artikuluan, honako jarduketak eremu hauekin:

- a) Lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzea.
- b) Gizarte-ekonomia: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa.
- c) Enpresen gizarte-erantzukizuna.
- d) Gizarte Segurantzaren, Autonomia Estatutuan aurreikusitako moduan.
- e) Botere Judizialarekiko harremanak zaintzea.
- f) Justizia Administrazioaren jardunerako baliabideak jartzea.
- g) Espetxe-establezimenduak eta, bereziki, horien antolaera, funtzionamendua eta espetxe-legeria betetzea, legeria horrek Espetxe Administrazioari organo zentrali ematen dizkien ahalmenen egikaritzea bere gain hartuz.
- h) Adingabe arau-hausleen arloko eskumenak egikaritzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumenak alde batera utzi gabe.
- i) Notarioak eta jabetza-erregistratzaileak izendatzea.
- j) Euskararen Erabilpena Arauzkotezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarrei ematen dizkien eskubideak erabili ahal izatea bermatzea Justizia Administrazioan.

Apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak, Lan eta Justizia sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duenak, honakoa ezartzen du 6.1.m) artikuluan: Zerbitzu Zuzendaritzaren eskumena da «Sailaren estatistika-lanak bultzatu, proposatu eta garatzea, hargatik eragotzi gabe Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) eskumenak».

Apirilaren 23ko Euskadiko Autonomia-Elkartearen Estatistikari buruzko 4/1986 Legean aurreikusten da sail bakoitzean estatistika-organon espezifikoa bakarrik sortzea, eta, beraz, dekretu honen bidez Lan eta Justizia Sailari dagokiona sortzen da.

Estatistika-organon espezifikon honen erregulazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean xedatutako esparruaren barruan egingo da, lege horren 26. artikuluan xedatzen baita estatistika-organon espezifikoa eratuta daukaten Jaurlaritzako sailak arduratuko direla, besteak beste, autonomia-erkidegoaren estatistika-jarduketaz. Era berean, ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuan ezarritakoari jarraitzen zaio estatistika-organon espezifikon berriaren antolaketa eta funtzionamendurako, lehen aipaturiko legeko aurreikuspenen barruan betiere. Izan ere, dekretu horretan arautu ziren Jaurlaritzaren sailerako estatistika-organon espezifikonak, zehazki organon horien sorrera, antolaketa eta funtzionamendua, eta ezarri zen estatistika-organon espezifikotzat joko direla, bakar-bakarrik, dekretuaren arauen arabera eratu direnak.

Betekizun formalei dagokienez, ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak ezartzen du estatistika-organo espezifikoa dekretu baten bidez sortuko direla, eta pertsona bakarreko organo gisa eratuko direla, hain zuzen ere goi-kargudun batekiko edo sailean koordinazio-funtzioak dituen beste organo batekiko menpekotasun zuzena izango duen organo gisa. Kasu honetan, estatistika-organo espezifikoa zerbitzu zuzendariaren menpe egongo da, kargu horrek betetzen baititu aipatutako koordinazio-eskakizunak.

Dekretua Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Dekretuaren arabera izapidetu da, behin 180/1993 Dekretuan aurreikusitako Euskal Estatistika Batzordearen nahitaezko txostena jaso ondoren, eta sailaren jarduketa-eremu berriaren behar eta jarduketa-proiektuak kontuan hartuta.

Hori guztia dela eta, Lan eta Justiziako sailburuak proposatuta, Euskal Estatistika Batzordeari kontsulta egin ostean, eta Gobernu Kontseiluak 2017ko ekainaren 20an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da Lan eta Justizia Sailaren estatistika-organo espezifikoa sortzea, bai eta haren antolaketa- eta funtzionamendu-arauak zehaztea ere, Jaurlaritzako sailen estatistika-organo espezifikoa arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuaren xedapenei jarraikiz.

##### 2. artikulua.– Konfigurazio organikoa.

Lan eta Justizia Saileko Estatistika Organo Espezifikoa kide bakarreko organoa da, eta zerbitzu-zuzendariaren mende egongo da zuzenean.

##### 3. artikulua.– Eskumenak.

1.– Lan eta Justizia Saileko estatistika-organo espezifikoa I. klaseko organo gisa eratzen da eskumenen ondorioetarako. Hori dela eta, mota horretako estatistika-organo espezifikoei buruzko ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak esleitzen dizkien eskumenez eta ahalmenez baliatuko da, zehazki honako hauez:

Sailaren estatistika-jarduera planifikatzea, koordinatzea eta bultzatzea, eta beste erakunde batzuekin erakunde-harremanak izatea, sailari dagozkion estatistika-eginkizunak direla eta, betiere 4/1986 Legearen 29.c) eta d) artikuluetan xedatutakoa betez.

Sailaren estatistika-plana egitea, Estatistikaren Euskal Planaren Proiektuaren oinarri izateko, sailaren estatistikei dagokienez.

Euskal Estatistika Erakundearekin lankidetzan aritzea Estatistikaren Euskal Plana eta Urteko Programa Estatistikoak egiteko.

Estatistikaren Euskal Planean eta/edo Urteko Programa Estatistikoetan adierazitako estatistikak edo estatistika-faseak egitea, haietan ezarritako eran.

Estatistikaren Euskal Planean edo Urteko Estatistika Programetan sartu gabeko estatistika proiektuak egitea, 4/1986 Legeko 8.1. artikuluan ezarritako eran.

Bere eskumenen baitako estatistikak egiteko informazioa lortzea, 4/1986 Legearen 9. artikulutik 16. artikulura xedatutako eran.

Artikulu honetako d) idatz-zatian adierazitako estatistiken emaitzak eta Estatistikaren Euskal Planean zein Urteko Programa Estatistikoetan zehaztutakoak argitaratu eta jakitera ematea, edukiaren berri Euskal Estatistika Erakundeari jakinarazi ondoren.

Bere sektore-esparruko fitxategi/direktorio estatistikoak egiten eta eguneratzen parte hartzea, 4/1986 Legearen 29.i) artikuluan xedatutakoari jarraiki.

180/1993 Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Lan eta Justizia Sailak interesgarritzat jotako estatistika-proiektuak egitea.

2.– Aurreko zenbakian adierazitakoaren harira, hauek dira Lan eta Justizia Sailaren estatistika-organo espezifikoaren jarduketa-eremuak:

Lan-harremanak, Gizarte Ekonomia, Enpresaren gizarte-erantzukizuna eta Gizarte Segurantza; betiere Autonomia Estatutuan aurreikusitako moduan.

Botere judizialarekiko harremanak zaintzea; justizia baliabidez hornitzea, behar bezala jardun dezan; espetxe-establezimenduak eta, bereziki, haien antolaera eta funtzionamendua eta espetxe-legeriaren betearazpena, bere gain hartuz legeria horrek Espetxe Administrazioako organo zentraleri ematen dizkien ahalmenak; adingabe arau-hausleen arloko eskumenak baliatzea, ezertan eragotzi gabe Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak arlo horretan dituen eskumenak; notario eta jabetza-erregistratzaileak izendatzea eta Euskararen Erabilpena Arauzkotezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarrei ematen dizkien eskubideak erabili ahal izatea bermatzea Justizia Administrazioan.

3.– Lan eta Justizia Saileko estatistika-organo espezifikoak bere eskumenak baliatuko ditu sailaren zein sailera atxikitako erakundeen estatistika-premietarako, bai estatistikak datu estatistikoetan oinarrituta egin behar badira, bai datu administratiboetan oinarrituta egin behar badira.

4 artikulua -Funtzionamendua.

1.– Behin 180/1993 Dekretuko 4. artikuluan jasotako Estatistika Organo Espezifikoen Erregistroan inskribatu ondoren, Lan eta Justizia Saileko estatistika-organo espezifikoak Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikarekin lotutako jardunari ekingo dio, estatistikari buruzko legeria betez –bereziki, estatistika-sekretuari buruzkoa– bai beste organo eta erakunde batzuekin dituen harremanetan, eta bai sail horri atxikituriko edo sail horri dagozkion organo eta erakundeekin dituenetan ere.

2.– Bere jardunean, Lan eta Justizia Sailaren estatistika-organo espezifikoak barne-antolaketa egin beharko du, dekretu honetako 3. artikuluko 2. zenbakian adierazitako jarduketa-eremuak betetzeko moduan.

3.– Lan eta Justizia Saileko estatistika-organo espezifikoak errespetatu egingo ditu saileko gainerako organo eta erakundeek legez eta zehazki esleituta dituzten estatistika-eskumenak.

4.– Aurreko hori hala izanda ere, organo eta erakunde horiek estatistika-organo espezifikoari emango diote hark bere eskumenak betetzeko eskatutako informazioa. Horrez gain, lankidetzan arituko dira organo horrekin, agintzen zaizkion azterketak, estatistikak, txostenak eta ikerketa-lanak egiten, beren eskumenekin zerikusirik badute.

5.– Bere eskumenak gauzatzean, Lan eta Justizia Saileko estatistika-organo espezifikoak kontuan har ditzake organo horretara atxikiturik ez dauden langileak, saileko langileak zein sailaren beste erakundeetakoak izan. Langile horiek, apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 15. artikuluan xedatutakoari jarraiki, estatistika-eragiketekin lotuta egingo duten lanaren zatiari dagokionez, estatistika-langiletzat hartuko dira, eta sailaren estatistika-organo espezifikoaren irizpide teknikoak

bete beharko dituzte; batez ere, jardunean eskuratzen duten informazio guztiari buruzko estatistika-sekretua gordetzearena.

5. artikulua.– Administrazio-baliabideak.

1.– Lan eta Justizia sailburuak eskumena izango du Lan eta Justizia Sailaren estatistika-organo espezifikoren egintzen aurka ezartzen diren errekurtsuez arduratzeko eta horiek ebazteko.

2.– Errekurtsio horien ebazpenerako, Euskal Estatistika Erakundearen nahitaezko txostena izan beharko da lehenbizi.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Jardueraren jarraitutasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, kendu eta aldatzeak edo horien eginkizunak eta jarduketa-eremuak finkatzeak Lan eta Justizia Sailaren estatistika-organo espezifikoren jarduerari eraginez gero, inplikaturiko sailek adostu dezakete, ados jarrita, neurri iragankorrak ezartzea, modu horretan bermatu ahal izateko aipaturiko organoak jarduera estatistikoekin jarraitzea Estatistikako Euskal Planaren edo Urteroko Estatistika Programen barruan.

LEHENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Sailaren estatistika-plana.

Sailaren estatistika-plan espezifikoa onartu bitartean, plan horren pareko izango dira unean uneko indarreko Euskal Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programetan sartutako estatistika-eragiketak, non Lan eta Justizia Saileko estatistika-organo espezifikoak parte hartzen duen.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

1.– Sailaren estatistika-organo espezifikoa Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko estatistika-organo espezifikoen erregistroan inskribatzen denean, saileko estatistika-organo espezifikora atxikituko dira, etenik gabe, orain arte Lan eta Justizia Sailean egin izan diren estatistika-jarduera guztiak.

2.– Horrekin batera, orain arte estatistika-jardueretara atxikituta egon diren baliabideak eta bitartekoak ere atxikituko dira.

3.– Atxikitzeko, Dekretuan jartzen denari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Erregelamendu bidezko garapena.

Lan eta Justiziako sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko ekainaren 20an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lan eta Justiziako sailburua,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.